

Asuango presa, ingurumenaren kalterako

Ainara Belaustegi Irazabal
Elhuyar Zientziaren Komunikazioa



1960ko urtarrilean ekin zioten Asuango Presa Handia egiteari, Egipton. Hamar urteren buruan eraikita zegoen presa, eta bazirudien ageriko abantailak ekarriko zituela. Ez zuten horrenbeste pentsatu, ordea, gisa hartako eraikuntzak ingurumenean izango zuen inpaktuan.

ASUANGO PRESA HANDIA HANDIA DA BENE-TAN: 111 metroko altuera, ia kilometro bateko zabalera eta 2.325 metroko luzera ditu. Eta zer esanik ez presak sortzen duen urtegiak; Nilo ibaian zehar 500 km inguruko luzera eta 6.000 km²-ko azalera ditu. Egipton dago Asuango Presa Handia, Kairoitik 800 km hegoaldera, baina, dena dela, urtegia ez dagokio soilik Egiptori, Sudanena da herena. Hargatik, lakuak bi izen ditu: egiptoarrentzat Nasser da eta Sudangoentzat Nubia.

Pres handi hura uholdeak kontrolatu, ureztapen-azalera emendatu eta energia hidroelektrikoa ekoizteko eraiki zen. Baina, abantaila horiez gain, inpaktu handia izan du ingurumenean.

Lurzorua gero eta pobrea

Nilo ibaiaren ur-emaria asko jaitsi zen Asuango presaren ondorioz, eta, urarekin batera, sedimentuak ere lakua- ren hondora geratzen dira. Aurretik gutxi gorabehera 124 milioi tona sedimentu garraiatzen zituen Nilok urtean, eta haietatik 10 milioi tona inguru uzten zituen uholde-lautadan. Asuango presa egin zenetik, ordea, sedimentu horien % 89 Nasser lakuan geratzen da, eta, ondorioz, uholde-lautadaren emankortasuna eta sakonera gutxitu egin dira. Inpaktu horri aurre egiteko, lehenago erabiltzen ez zituzten ongari artifizialak botatzen dizkiete lurrei nekazariak, eta ongari horiek lurzorua gazitu eta Niloko ura

poluitzen dute uholde-uren itzulera-
rekin batera.

Sedimentu faltaren eraginez, gainera,
deltak aurrera egiteari utzi dio, eta lehen
zegoen oreka apurtu egin da. Itsasoa,
kostaldeari lurra jaten ari zaio, eta
horrek ere laguntzen du lursailak ga-
zitzen.

Eta, guztiaren gainera, basamortu-
-klimak larriagotu egiten du egoera.
Nasser lakuko ura gero eta gaziagoa
da, asko lurruntzen baita; ondorioz,
hango urarekin ureztatutako lurretan
nabaria da eragina. Ezbairik gabe,
gazitasunarena arazo garrantzitsua
bihurtu da Egipton. 1999ko datuen
arabera, Egiptoko lurzoruen % 35ek
gazitasun-arazoak zituen.

Arrantzaren gainbehera

Lurrak ez ezik itsasoak ere jasan ditu
Asuango presaren ondorioak. Medi-
terratea itsaso oligotrofikoa da, hau
da, mantengai gutxikoa, eta ondorioz,
biodibertsitate txikikoa. Ekoizpen txiki
hori hainbat faktoreren ondorio da,
baina eragin handiena itsas lasterrek
dute. Mendebalde-ekialde norabideko
gainazaleko korranteak Atlantiko
iparraldeko urak dakartza Gibraltarko
itsasartean zehar, mantengai gutxiko



Arrantzaren gainbehera nabaria izan da
Mediterraneoko hego-ekialdean.



Uholde-lautadaren
emankortasuna
gutxitu egin da.

ARTXIBOKOA

urak, hain zuzen. Itsaslaster horrek,
halaber, kontrako fluxua eragiten du,
hau da, mantengaitan aberatsagoak
diren itsas hondoko urak Atlantiko-
rantz bideratzen ditu.

*“urtegiaren pisuak
lur azpiko
mugimenduak
eragin ditzake, eta
horrek urtegiaren
beraren
segurtasunari
eragin diezaioke”*

Dena dela, badaude gune emankorra-
goak ere; horien adibide da, edo zen
batez ere, Niloren bokale inguruko
gunea. Presa egin aurretik, Niloko uren
% 50 itsasora isurtzen zen. Batez
beste, uholde-garaian, 5.000 tona fos-
fato eta 280.000 tona silikato isurtzen
ziren itsasora. Haien eragina nabar-
mena zen itsasoan: fitoplankton-den-
tsitate handiak hazten ziren deltaren
aurrian, eta horiek bizidun askoren eli-
kagai iturri dira.

Uholde-urak Egiptoko kostan zehar
15 km hedatzen ziren Israelgo kostal-
deetara iritsi arte; batzuetan Turkiako
hegoaldera ere iristen ziren. Asuango
Presa Handiaren eraginez, ordea,
uholde-urak askoz pobregoak dira,
eta, ondorioz, Mediterraneoko hego-
-ekialdea ere pobretu egin da.

Harrapaketei begiratzea baino ez dago.
1962an eta 1963an 35.000 tona izate-
tik, 1969an 8.000 tona izatera pasatu
ziren. Adierazgarriena, agian, sardina-
ren harrapaketaren beherakada da,
batez ere *Sardinella aurita*-rena, -uhol-
de-garaian sortutako fitoplanktonaren
oso menpeko zen espezie hori-.
1962an 18.000 tona sardina harrapatu
zen; 1968an eta 1969an, aldiz, 460 eta
600 tona harrapatu ziren hurrenez
hurren. Izkiren arrantza ere asko jaitsi
zen. 1963an 8.300 tona izkira harrapatu
ziren eta 1969an 1.128 tona.

Urtegiaren kudeaketa

Dena dela, urtegiarekin lotutako ara-
zoak ez dira urtegitik kanpora gera-
tzen. Urtegiaren kudeaketak berak
hainbat buruhauste sortzen ditu.
Nasser lakua sedimentuz betetzen ari
da, eta hortaz, epe mugatuko proiektu
baino ez da.

Baina hori ez da kezka bakarra; inork
pentsatu al du hondamendi batek zer
ekar lezakeen? Azken urteetan, dese-
gonkortze sismikoaren arriskuak iker-
tzen dabilta. Urtegiaren pisuak lur
azpiko mugimenduak eragin ditzake,
eta horrek urtegiaren beraren segur-
tasunari eragin diezaioke. Asuango
urtegia apurtuko balitz, urtegiko
162.000 metro kubiko urek ikara-
garrizko hondamendia eragingo lukete
inguruan; pentsa, Kairoko 11 milioi biz-
tanleak urpean geratuko liriteke une
batetik bestera. □